DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Parke eta Lorategiak
Parques y Jardines
Urdaneta, 13 | Tel. 943481060 | www.donostia.eus
20006 Donostia / San Sebastián

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

Expte: 2022/064

BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA, 2022/2023KO NEGU-UDABERRIETAN DONOSTIAKO PARKE ETA LORATEGIETAKO LORE PARTERREETAN JARRIKO DIREN SASOIKO MINDEGI-LANDARE APAINGARRIEN ETA ERRABOILEN HORNIKUNTZA KONTRATUA ARAUTZEKOA

1. artikulua.- Xedea

Kontratu honen xedea da 2022-2023ko negu-udaberrietan hiriko parke eta lorategietarako mindegi-landare apaingarriz eta erraboilaz hornitzea, baldintza teknikoen agiri honetan zehazten diren baldintzekin bat etorriz.

2. artikulua.- Horniduraren baldintzak

Enpresa esleipendunak nahitaez bete behar du Espainiako eta Europako legediak instalazioei, biltegiratzeari eta banaketa pertsonalari dagokienez nahiz produktuak etiketatu, ontziratu eta errotulatzeari dagokienez ezarritakoa, bai eta lege xedapenetan horietako bakoitzaren inguruan ezartzen diren arau orokor eta partikularrak ere. Garraioa eta enbalajea une oro lotuko zaizkio aplikatzekoa den araudian xedatutakoari.

Hornigaiak Putzuetako mintegian entregatuko dira (Putzueta bidea, 16). Enpresa lizitatzaileak hitzematen du Putzuetako mintegian utziko dituela artikuluak, gastu orotatik libre, eta emate agiria ere ekarriko duela haiekin batera. Ondorio guztietarako, hornigaien zenbatekoaz gain, eskaintzaren barruan sartutakotzat joko dira gastu jasangarriak, garraio kostua, aseguruak, muga zergak, eta eskainitako produktuak entregatu eta jaso arte eragiketari dagozkion mota guztietako lizentziak eta baimenak.

Enpresa esleipendunak ezin izango du ordu, egun, ibilbide aldaketa, oporraldi, absentismo edo/eta hirugarrenek sortutako faktorerik adierazi hornidura saihesteko Udalak eskatutako kopuruetan, denboran eta datetan.

Putzuetako minegiko zamalanetan ezbeharren bat gertatzen bada eta horren ondorioz kalteren bat sortzen bada, enpresa esleipenduna izango da horren erantzulea, eta kalte hori minimizatzeko behar diren neurriak hartuko ditu. Hornigaiak edo ontziak garraiatzean, kargatzean, deskargatzean eta manipulatzean gorabeherarik sortzen bada, Udalari jakinaraziko zaio.

3º. artikulua.- Aplikatzekoa den legeria

- 170/2011 Errege Dekretua, otsailaren 11koa, barietate komertzialen erregelamendu orokorra onartu eta mintegiko haziak eta landareak kontrolatzeko eta ziurtatzeko erregelamendu orokor teknikoa aldatzen duena.
- 30/2006 Legea, uztailaren 26koa, mintegiko hazi eta landareena eta baliabide fitogenetikoena.
- 1891/2008 Errege Dekretua, azaroaren 14koa, mintegiko hazi eta landare ekoizleak baimendu eta erregistratzeko eta ekoizleen erregistro nazionalean inskribatzeko araudia onartzen duena.
- 3/2000 Legea, urtarrilaren 7koa, landare lorpenen babesaren araubide juridikoarena.
- Mintegiko Hazi eta Landareen Ekoizpenari buruzko Araudi Orokorra.

4. artikulua.- Produktuaren izena eta entregatzeko baldintzak

Indarrean dauden xedapenetan jartzen duena izango da; halakorik ezean, produktuaren erabilerarengatik edo deskribapenarengatik ezagun den izena; eta, beharrezkoa izanez gero,

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

haren erabilerarena, behar bezain zehatza, Udalari produktuaren benetako izaera ezagutzeko eta nahas litekeen beste batzuetatik bereizteko aukera emateko. Produktua normalizatuta dagoenean, kalitate izendapen tipifikatuak erabili beharko dira.

Bai mindegi-landare apaingarriei dagokienez (1. sorta) bai erraboilei dagokienez (2. sorta) A eta B eranskinetan, hurrenez hurren, adierazitako genero, espezie eta barietatekoak izango dira. Enpresa esleipendunak nahitaez egin beharko du barietateen hornidura, dokumentu honen 6. artikuluan adierazitako baldintzetan.

Mindegi-landare apaingarriak erretiluetan entregatuko da, 6. artikuluan adierazitakoaren arabera. Ez da onartuko zehaztutako formatuez bestelako hornidurarik. Espezieak edo barietateak bene-benetakoak izango dira, hau da, horiei dagozkien ezaugarriak izango dituzte. Entrega albaranekin batera, ziurtagiri fitosanitarioa ere emango da. Landareek ez dute izan behar gaixotasunek, izurriteek edo hazkuntza neurriek eragindako akatsik, haien balioa murrizten duenik. Osasuntsu eta ondo osatuta egon behar dute.

Landareak olanaz estalitako kutxa edo kutxa itxia duten ibilgailuetan garraiatuko dira, airearen eragina jasan ez dezaten. Substratuak hezetasuna gorde behar ibilbide guztian.

Udalak noiznahi egiaztatu ahal izango du horniduraren kalitatea, egokitzat jotzen dituen bitartekoen bidez. Hornitzailearen kontura izango dira entseguak eta probak egitearen ondoriozko gastu guztiak. Ez da onartuko eskatutakoa baino gehiago ekartzea.

Kontratu honen esleipendun suertatzen den enpresak erretiluan (1. sorta) eta kutxan (2. sorta) ekarri beharko ditu landareak, espeziea eta barietatea zein den behar bezala identifikatuta, nahasketarik gerta ez dadin. Produktu bakoitza bere erretiluan edo kutxa indibidualizatuan ekarri beharko da, eta ez da onartuko erretilu edo kaxa berean produktu desberdinak nahastea.

5. artikulua.- Saldu osteko arreta

Enpresa esleipendunak pertsona bat izendatuko du Udalak izendatutako kontratuaren arduradunarekin harreman zuzena izateko. Hura arduratuko da horniduran edo fakturazioan sortzen diren gorabeherak konpontzeaz.

6. artikulua.- Sorten kopuruak eta ezaugarriak

1. SORTA: LORE APAINGARRIEN MINDEGI-LANDAREAK

Guztira 111.344 Mindegi-landare ekarri beharko dira.

Neguko eta udaberriko mindegi-landareak kontratua sinatzen denetik urriaren 15era bitarte entregatu behar dira. Hornigai horiek sortaka ekarri ahal izango dira, barietatearen, instalazioaren erabilgarritasunaren eta garraio erabilgarriaren arabera.

Landareek loreontzirako egoki den tamaina bat izan behar dute, sustraiak justu birlandaketarako unean dituztela; landareek indartsu eta tente egon behar dute, inolako gaixotasunik eta izurririk gabe. Sorta honetako landare guztiek, gutxienez, amaierako hiru orri izan behar dituzte, eta sustrai sistemak ez du espirilizatuta egon behar; zurtoinak errotuta egon behar du: Mindegi-landaretik tira egitean, zurtoinak atera egin behar du, eta mindegi-landareak ez du sustraia biluzi duela geratu behar. Ez du argalduta egon behar.

Loreontzien erretiluek honako tamaina hauei dagozkien 84/128/180/288/510 albeoloak edo unitateak izango dituzte: 37MM, 29MM, 26,2MM, 20 mm eta 15,7Mm, hurrenez hurren; baita 9-10-13 cm-ko loreontziak ere. Landareak tamaina desberdinetakoak izango dira, albeoloaren edo loreontziaren ahalmenaren arabera.

A eranskinean zehazten da behar diren landareen zerrenda.

2. SORTA: LORE APAINGARRIEN ERRABOILAK

Guztira 48.950 erraboil ekarri beharko dira.

Neguko eta udaberriko erraboilak abuztuaren 15etik urriaren 15era bitartean ekarriko dira. Hornigai horiek sortaka ekarri ahal izango dira, barietatearen, instalazioaren erabilgarritasunaren eta eskura dagoen garraioaren arabera.

Erraboilek tente egon behar dute, eta ez dira birrinduko, ukituz gero. Ez dira lizunduta egongo; ez dute orban ilunik edo gaixotasun sintomarik izango; eta ez dute kimurik izango. Kartoizko edo antzeko kutxetan behar bezala enbalatuta entregatuko dira, eta bilgarriak ez du erraboilen kontserbazio onari kalte egin diezaiokeen akatsik, kolperik edo hezetasunik izango.

B eranskinean zehazten da behar diren erraboilen zerrenda.

Donostia, 2022ko ekainaren 23a

Parke eta Lorategietako Atalaren Teknikaria

Maite Santiago

Parke eta Lorategietako Atalaren Burua

Ainitze Otamendi

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Lege Zuzendaritza - Dirección Jurídica

Tokiko Gobernu Batzarrak onartua.
Aprobado por la Junta de Gobierno Local.

2022 UZT. JUL. 12

Batzordeko idazkaria,
El/La secretario/a de la Junta,